

www.unescoetxea.org

2016

TXOSTENA

UNESCO ETXEA

EUSKAL HERRIKO UNESCO ZENTROA

ARANTZAZU ACHA ZUZENDARIA



Ohorezko Bazkideen Aholku Batzordearen biurteko VI. topaketa. Bilbo, 2016ko ekainak 14
Ohorezko Bazkideak, Gobernu Kontseilua eta lan taldea.

2016 urtean izan dugu zer ospatua. Gure erakundeak 25 urte bete ditu, eta hori gauza handia eta pozgarria da benetan, urte hauetan guztietan etengabe lanerako izan dugun konpromisoaren, ahaleginaren eta irmotasunaren aitortza adierazten baitu. Mende laurdena bete dugu pertsona askoren laguntzari esker, askok jarduten baitute gurekin batera eraikitzen eta laguntzen, ilusioz beteta eta –hau ere esan beharra dago– erreferentetzat utopia hartuta. Ibiliko bidea ospatuz eta etorkizuna eraikiz, gure ahaleginetan erakunde eta pertsona asko izan ditugu laguntzaile, eta horiei guzties eskertu nahi diegu eman diguten babesa eta aitortza, bai eta adierazi ere elkarrekin hazten jarraitzea espero dugula.

UNESCO Etxeak azken urteotan bizi izandako aldaketen artean, presidentetzan gertatutakoa izan da esanguratsuenetako bat. Ruper Ormazak, karguan 14 urte eman ondoren, Guillermo Dorronsorori utzi dio bere lekua. Ruper, UNESCO Etxeko bazkide-sortzailea, Gobernu Kontseiluko kide izan da gure erakunde sortu zenetik, eta bertako erreferentziako figura da. Bere eskuzabaltasun, konpromiso eta nekazintasunarekin, ekarpen aberatsa utzi dio erakundeari, eta lagungarria izan da oso, gure erakunde Euskadin Nazio Batuen erreferentzia bihurtu dadin. Ruperrek, 25 urtean proiektu hau gogo biziz eraikiz, transmititu digu zeinen garrantzitsua den hurbilekotik eta berehalakotik harago begiratzea, errealitatearen konplexutasuna ulertzeko.

Ruperrek 2002an hartu zuen presidentetzaren lekukoa Jon Arrietarengandik, eta azken horrek kontseilukide izaten jarraitu du urte honetara arte. Biei aitortu nahi diegu beren ekarpen ikaragarria, ez bakarrik UNESCO Etxearen historiari egindakoa, baizik eta baita erakundearen etorkizunari egin diotena ere.

Eta, horregatik, gure erakunde Ohorezko Bazkideen Aholku Batzordeko kide izateko eskatu diegu. Izan ere, gurekin nahi ditugu oraindik ere haien jarrera, ezagutzak eta leialtasuna, ikasten jarraitzeko, gure lanean gero eta zorrotzagoak izateko, eta gure misioan gero eta irmoagoak izateko. Horregatik guztiagatik: eskerrik asko, Jon; eskerrik asko, Ruper.

Eta ezin izan zitekeenez bestela, gauzak ilusio handiz eta dena emanda egiten jarraitzeko gure gogoari eutsiz –horri esker iritsi baikara honaino–, eskerrik asko Guillermo. Elkarrekin abiatuko dugu etapa berri bat, erronka eta helburu berriak ekarriko dizkiguna bai pertsona garen aldetik bai erakunde garen aldetik, bai eta euskal gizartearen eta mundu aldakor honen parte garen aldetik ere. Ziur nago UNESCO Etxearen historiako kapitulu berri hau zirrargarria eta aberasgarria izango dela. Ez dut batere zalantzarik horretan.

Eta UNESCO Etxearen parte zareten guztioi ere eskerrak eman nahi dizkizuegu hor izateagatik. Inoiz ez ahazteagatik, eta guri ere ahazten ez uzteagatik, hor egon beharra dagoela. Besarkada handi bat, maitasunez eta esker onez bete, errealitate justuago eta gizatiarago bat lortzeko gure ametsa lortzen laguntzen diguzuen guztioi.

Erredakzio: UNESCO Etxea – Euskal Herriko UNESCO Zentroko lan-taldea ; **Edizioa:** 2017ko maiatzak

Bilbao: Isozaki Atea – Bizikidetasun plaza. Uribitarte pasealekua 12, 2. lokala. **Tfna:** 94 427 64 32

Gasteiz: Zapatarri kalea 8. **Tfna.:** 945 26 41 96

info@unescoetxea.org – www.unescoetxea.org

unesco etxea

 Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura
 Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea
 Centro unesco euskal Herria
 Centro unesco para euzkoak
 Centro unesco para euzkoak
 Miembros del Movimiento de Clubes, Centros y Asociaciones para la UNESCO
 UNESCOren taldeak Klubak, Zentroak eta Elkarteak
 Miembros del movimiento




NOR GARA?

UNESCO Etxea – Euskal Herriko UNESCO zentroa irabazi-asmorik gabeko erakundea da. 1991ean sortu zen eta UNESCO (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) erakundearen printzipioak, programak eta jarduera-ildoak euskal esparruan zabaltzeko asmoa du.

2006an Onura publikokoa deklaratu, egun, elkarteak 132 bazkide ditu, eta horiek osatzen dute erakundearen gizarte-oinarria.

UNESCO ETXEKO ORGANIGRAMA



Gainera:

- 10 Boluntario egoitzan.
- Eusko Jauritaritzarekin 12 bekadun UNESCO bulegotan Amerikan, Asian eta Afrikan
- BBK Fundazioarekin 2 bekadun en UNESCOren Pariseko egoitzan.



UNESCO Etxea Catalunyako Oberta Unibertsitateko puntu fokala izendatzen den akordioaren sinadura. Bilbo, 2016ko maiatzak 25

EGINKIZUNA, IKUSPEGIA, BALIOAK

EGINKIZUNA

UNESCOren Konstituzioko agindua –persona bera eta pertsonaren duintasuna nahiz balio gorena oinarritzat hartuta bake bidezkoa eta duina eraike behar dela dioena– partekatzen dugu. Eta horretarako, elkarte, UNESCOren sozietate zibil gisa, euskal elkarte solidarioa bihurtu da, nazioartean jardungo du eta:

- Aktiboki hartzen du parte tokiko nahiz nazioarteko ekimenetan eta sareetan;
- Elkarrekintza eraldatzailea sustatzen du euskal gizartearen eta nazioarteko komunitatearen artean batez ere UNESCO eta NBERekin;
- Bere iritzi eta irizpideen ekarpena ere egiten du, hainbat modutara: ikerketaren, eragitearen, prestakuntzaren, berrikuntzaren eta dibulgazioaren bidez.

IKUSPEGIA

Bake-kultura eta giza garapen iraunkorra –eskubideak eta erantzukizunak dituen– lortzeko egiten dugu lan. Lortu nahi dugun mundu berrian, pertsonak, gizarte-antolakundeak, hizkuntza- eta kultura komunitateak eta herriak aintzat hartuko dira herritartasun global demokratikoa erakitzeko. Horretarako, giza talde sortzaile, parte-hartzaile, paritarioa eta aktiboa sortu dugu, elkartearen misioarekin eta balioekin bat datorrena.

BALIOAK

Balio hauekin identifikatzen gara:

- Zintzotasuna; izan ere, gure zereginak, legezkoa eta etikoa izateaz gain, gure sektoreko jokabide-kode onena bete behar du;
- Partaidetza asertiboa, talde profesionalaren, Zuzendaritza Kontseiluaren, bazkideen eta kolaboratzaileen aldetik;
- Zuzentasuna, eskubide eta betebeharrei dagokienez;
- Gardentasuna eta gidaritza egokia, barrura nahiz kanpora begira, jarduerak, zuzendaritza-organoetako kideen izenak eta haiek hautatzeko eta berritzeko modua, ikuskatutako kontuak eta kudeatutako fondoen jatorria urtero argitaratuz;
- Profesionaltasuna, arlo guztietan kalitatez, eraginkortasunez, zehaztasunez eta errespetuz lan eginez;
- Sarean lan egitea, gure konpromisoak tokiko eta nazioarteko sare eta aliantzekin partekatuz;
- Independentzia, erakunde publiko eta pribatuekin elkarlanean arituz, baina, betiere, independentziari eutsiz, eta beti gure ideien printzipio eta balioen arabera jokatzuz;
- Pluraltasuna, elkartearen barruan zein gure proiektzio publikoan, gure organo eta lanetan gizarte honen konplexutasuna eta osatzen dugun dibertsitate globala kontuan hartuz.

SARE ETA ALIANTZAK

UNESCOrekin eta Nazio Batuekin elkar hartuta...

- UNESCOrekin Harreman Ofizialen Estatusa.
- Nazio Batuetako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren aurreko Aholkularitza Estatusa (ECOSOC).
- UNESCOren kultura-ondare ez-materiala babesteko batzordearen GKE aholkularia.
- Nazio Batuen Informazio Publikoaren Saileko (DIP) kidea.
- UNESCOren eskola elkartuen sarearen (PEA Sarea) autonomia erkidegoetako koordinatzailea eta estatuko koordinatzaileen taldeko kidea.
- UNESCOrekin Elkartutako Liburutegi Sareko (UNAL) kidea.

Erakunde eta proiektu ezberdinetan parte hartuz...

- UNESCOrekin Elkarlanerako Espainiako Batzordea.
- Nazio Batuen Garapen Iraunkorraren Helburuei buruzko Kanpaina.
- Nazio Batuen Giza Eskubideentzako Ordezkarri Nagusiaren Bulegoa (OHCHR).
- Garapenerako Nazio Batuen Programa (UNDP).
- Nazio Batuen Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturaren Batzordea.

...Sarean lan egiten duen nazioarteko gizarte zibilaren partaide...

- UNESCO Zentroen, Elkarten eta Kluben Munduko Federazioa (FMACU).
- UNESCO Zentroen, Elkarten eta Kluben Espainiako Federazioa (FECU).
- Federació Catalana d'Associacions i Clubs UNESCO (FCACU).
- UNESCOren kultura-ondare ez-materiala babesteko konbentzioaren aurrean akreditaturik diren GKE-en Sarea.
- UN NGO Major Group.
- UN Women Major Group.
- Local Authorities Major Group.
- Together 2030.
- Water Assessment and Advisory Global Network (WASA-GN).
- ONGAWA.
- CONGDE-Espainiako GGKEen Koordinakundea (*Pobreziaren kontrako taldea*).
- Giza Eskubideak Defendatu eta Sustatzeko Espainiako Elkarten Federazioa.

- Munduko Landagunea.
- Cultura de Paz Fundazioa
- Euskal Herriko UNESCO Sarea.

...Euskal Herritik maila lokalean eta globalean ekimen anitzetan parte hartuz...

- Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UPV/EHuko UNESCO Katedra.
- Munduko Hizkuntza Ondareari buruzko UPV/EHuko UNESCO Katedra.
- Kultur paisaiak eta Ondareari buruzko UPV/EHuko UNESCO Katedra.
- Deustuko Unibertsitateko Latinoamerikako Giza Baliabideen prestakuntzarako UNESCO Katedra.
- Gironako Unibertsitateko Kultura Politiken UNESCO Katedra.
- Euskadiko GKEen Koordinakundea (*Eragin politikoa taldea*).
- Giza Eskubideetan Heitzeko eta Bakearen aldeko Elkarten Foroa.
- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatua.
- Universitat Oberta de Catalunya (UOC).
- Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Institutua.
- CIDE - Espainierako Nazioarteko Deustu Ikastegia.
- Deusto Alumni - Deustuko Unibertsitatea.
- Euskaltzaindia.
- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa.
- Garapen Bidean.
- Euskal Kostaldeko Geoparkea.
- Añanako Gatz Harana Fundazioa.
- Soziolinguistika Klusterra.
- Bertsozale Elkarte.
- Unescocat – Centre UNESCO de Catalunya eta Linguapax Institutua.
- UNESCOren lagunak Korporazioa, Kolonia.
- Ahalbidetu Asoziazioa.
- Henri Lenaerts Fundazioa.
- Cascantum Asoziazioa.
- Plataforma 2015 y +.
- Bilbao Diseinuaren UNESCO Hiria . Hiri Sortzaileen Sarea.
- Gasze Enplegurako Hamarkadaren kanpaina. Novia Salcedo Fundazioa.

UNESCO BEKAK

1997 – 2016

175 PERTSONA

46 HERRIALDE

Kontinenteen arabera

AMERIKA	87
ASIA	47
AFRIKA	35
OZEANIA	6
GUZTIRA	175

Sexuaren arabera

EMAKUMEAK	138
GIZONAK	37
GUZTIRA	175



PROGRAMAK. Jarduera nabarmenak

2030 AGENDA ETA NAZIO BATUAK



'Etorbizun erkide berria: 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorraren Helburuak' nazioarteko jardunaldiak. Gasteiz, 2016ko apirilak 20 eta 21.
(ezker-eskubi) Paul Ortega, Ramiro González, Magdy Martínez-Soliman, Arantza Acha eta Jaione Aguirre López de Araya.

2016an, indarrean sartu dira bai Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda eta bai Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH). Horrenbestez, horiek nazioartean, nazio mailan eta gure herrian implementatzeko lehen urratsak ematera bideratu ditugu aurtengo ahaleginak. Alde horretatik, horiek Europan, Espainian eta Euskadin ezartzeko eta egokitzeko oinarriak ezar daitezzen egin dugu lan aruten..

Horretarako, lankidetzan jardun dugu tokiko, estatuko eta mundu mailako erakundeekin, maila horietan guztietan 2030 Agendarekin lotuta dauden espazio esanguratsuetan parte hartuz. Nabarmenezkoa da '**Etorbizun erkide berria: 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorraren Helburuak**' izeneko nazioarteko jardunaldiak antolatu ditugula Gasteizen, eta 2030 Agendaren nahiz GIHen alorreko lan-eremuei buruzko munduko adituak izan ditugula bertan. Parte-hartzaileetako bat Magdy Martínez-Soliman izan da, Nazio Batuen Garapenerako Programako administrariaren ondokoa.

Elkarrekin gogoeta egiteko espazioak ere sustatu ditugu, 2030 Euskal Agenda batek izan ditzakeen ahalmenei, aukerei eta erronkei buruz hausnartzeko. Horren erakusgarri da '2030 Agenda eta GIHak: begirada bat garapenerako lankidetzaren ikuspuntutik' izeneko tailerra. Lanerako tailer horretan, euskal lankidetzaren esparruan 2030 Agendarekiko interesa duten eragile sozialen eta instituzionalen masa kritiko bat bildu du UNESCO Etxeak.

Halaber, 2030 Agenda ikuspegi kritikoz eta eraikitzailez aztertzen lagundu nahi izan dugu, '**Transformar nuestro mundo, ¿realidad o ficción? Reflexiones sobre la agenda 2030 para el desarrollo sostenible**' izeneko argitalpenarekin.

Bestalde, lanean jarraitu dugu GIHak euskal gizartearen ezagutarazteko (gizarte zibilean, administrazio publikoetan, enpresa pribatuetan, gazteen artean, irakasleen artean...), zabalkunde-, sentsibilizazio- eta prestakuntza-jardueren bitartez. Zabalkunde eta sentsibilizatorako ekintzen artean, honako ekintza esanguratsu hauek nabarmendu behar dira: **SOSTenibles.tv kanpaina eta lehiaketa**, GIHen alde **Bizkaian egindako kanpaina** bat, 2030 Agendari buruzko **e-buletina**, 2030 Agendari buruzko **bideo bat** eta EAEko hainbat **udalerritako kaleetan** GIHekin lotuta egindako 10 ekintza baino gehiago.

Prestakuntza-jardueri dagokionez, berriz, aipatzekoa da hainbat ikastaro eta tailer egin direla, hala presentzialak nola online, bai oro har jende guztiarentzat bai espezialistentzat. Horien artean, ikastetxeetan egindako tailerrak nabarmendu daitezke; tailer horietan 120 gaztek hartu dute parte, gutxi gorabehera.

Nazio Batuekin lotuta, nabarmenezkoa da **BBK-UNESCO Nazioartekotze Beken** 3. edizioari esker bi pertsona aritu direla lanean 6 hilabetez Parisen UNESCOren egoitza nagusian, bata Administrazio Zerbitzu Nagusietan (administrazio eta finantzen sailean), eta bestea Hezkuntzaren alorrean.

Eta Eusko Jaurlaritzaren **NBE beka-programari esker**, 5 pertsona aritu dira lanean Afrikako, Asiako eta Latinoamerikako herrialdeetako UNESCOren bulegoetan. Horiez gain, beste 6 pertsonak beste urtebeterako berritu dute beka. Horrela, 175 euskal herritarrek hartu dute parte programa horretan 1997tik.

GARAPENERAKO KULTURA



Europako Hizkuntza-Aniztasunaren Foroa.
Donostia, 2016ko abenduak 15 eta 16.
(ezker-eskubi) Irmgarda Kasignkaite, Arantza Acha, Indrajit Banerjee, Eider Mendoza, Eneko Goia Iñigo Urkullu, Maria Teresa Lizaranzu, Markel Olano, Bingen Zupiria, Pablo Berastegui.

2016ean, UNESCO Etxeak kultura-aniztasuna sustatzeko premia defendatzen jarraitu du, ezinbesteko osagaia baita giza eskubideak eta gizarte bidezkoak bultzatzeko. Gainera, 2030 Agendan kultura sartzearan alde egiten jarraitu du, bai eta kultura-eskubideak agerian jartzen ere.

Testuinguru horretan, '**Eskubide kulturalak eta talde kalteberak**' izeneko mintegia antolatu dugu Deustuko Unibertsitatearekin batera. Mintegi horretan, gazteen, biztanleria indigenen, emakumeen eta desgaitasunak dituzten pertsonen kultura-eskubideak jorratu dira. Horrez gainera, '**Museoak, gizartea eta garapena**' izeneko mahai-ingurua antolatu dugu, eta hor hainbat gai landu dira, hala nola globalizazioa, garapen ekonomikoa, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, eta museoen eginkizun soziala.

Bestalde, generoa, erakundearen egiten diren ekintza guztietan zeharkako elementua izateaz gain, berariaz landu da Euskal Herriko Unibertsitateko XII. Kongresuan, '**Kultur ondarearen generoa: bazterketak, isiltasunak, berdintasuna**' izenekoan, komunikazio honetan: **Visibilizando lo invisible: las mujeres en el Patrimonio Inmaterial de la Humanidad. El caso del Candombe en Uruguay.**

Era berean, kultura-ondarea lantzen jarraitu dugu, lankidetzazko sormenaren bidez, '**Aniztasunera Leihoa**' izeneko tailerretan. Hortaz, Urdaibaiko Biosfera Erreserba filmazio-leku bihurtu da bertako zenbait gazterentzat, eta horrela, lehen aldiz jardun dute ikus-entzunezkoen alorrean, kultura-aniztasuna eta tokiko biodibertsitatearen balioa nabarmetzeko. Ekimen hori osatzeko, Bizkaiko Ondarearen Europako Jardunaldiaren parte hartu dugu; aurtengo edizioan 'Etxetik Kanpo' izan da jardunaldi horien gaia.

Horrez gainera, UNESCO Etxeak aktiboki parte hartu du **Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuaren** (DSS2016EU) ekitaldietan. Hain zuzen ere, hizkuntza-aniztasuna denez Europako ondasun aberatsenetako bat eta Europaren aniztasunaren erakusgarri garrantzitsuetako bat, 2016an **Europako Hizkuntza Aniztasunaren Foroa** antolatu dugu, eta bertan bildu dira Europako gizarte zibileko 300 agente, erakunde nahiz espezialista baino gehiago, bai eta ikerketaren nahiz kulturaren arloko erakundeak eta gobernu-erakundeak ere, Europako hizkuntza gutxituen bilakaeran eragiten duten alderdiei buruz gogoeta egiteko eta eztabaidatzeko. Foro horretan, UNESCOren ordezkariak ere izan ditugu, **Munduko Hizkuntzen UNESCO Atlasaren proiektu berria** aurkezten.

UNESCO argitalpenetan ere lagundu dugu, eta hainbat kanpainatan eta nazioarteko egunetan parte hartu dugu, bai eta beste hainbat elkarterekin ditugun hitzarmenak sendotu ere, bereziki UNESCO Katedren ingurukoak, eta horri esker, gizarte- eta kultura-eragile berriak eta sektore pribatua engaiatu ditugu UNESCO Etxeak kultura-arloan egiten duen lanean.

BAKE KULTURA ETA GIZA ESKUBIDEAK



Munduko ondare den labar arteri buruzko II. topaketa.
Santimamiñeko Kobazuloa, 2016ko apirilak 18 eta 19.

2016an, Bakearen Kultura eta giza eskubideak sustatzen jarraitu dugu, prestakuntza-jardueren bidez eta UNESCOren txostenak aurkeztuz.

'Hezkuntza berraztertzea. Mundu osoko ongia lortzeko bidea?' izeneko UNESCOren txostena aurkeztu da, UNESCOren bi argitalpen historiko hauen espirituari jarraituz: 'Aprender a ser: la educación del futuro' (Faure Txostena, 1972) eta 'Hezkuntza, altxor ezkutua' (Delors Txostena, 1996). 'Hezkuntza berraztertzea' izeneko txosten horretan, planteatzen da berriz ere gogoeta egin behar dela hezkuntzari buruz, anbizio handiz, eta zenbait galderari erantzun behar zaiela; esaterako, honako hauei: Zer hezkuntza behar dugu XXI. menderako? Zer helburu du hezkuntzak gaur egungo gizarteraldaketako testuinguruan?

Txostena euskarara itzuli, eta EAEko ikastetxeetan banatu da.

Era berean, UNESCOk urtero argitaratzen dituen txostenen testuinguruan, beste txosten hau aurkeztu da: **'Herrien eta planetaren zerbitzurako hezkuntza'**. Bertan, azaltzen da zer aurrerapen egin diren bai GIHko 4. helburua lortzeko bidean (kalitatezko hezkuntzari buruzkoa) bai helburu horrekin lotutako hamar xedek lortzeko bidean. Txosten horretan UNESCOk agerian jartzen du zer aukera eskaintzen dituen hezkuntzak Garapenerako Agenda berria ezarritako helburu guztiak lortzeko bidean aurrera egiteko.

Prestakuntzari dagokionez, **'Garapenerako lankidetzaren proiektuen formulazioan giza eskubideen ikuspegia barne hartzea'** ikastaroa egin da, eta euskal erakundeetako eta unibertsitateetako 20 ordezkariak parte hartu dute bertan.

'Human Rights Internship Programme' izeneko prestakuntza-ikastaroaren bosgarren edizioa ere antolatu da, komunikazioaren alorreko profesionalentzat, prestakuntza jaso dezaten giza eskubideen jatorriari, historiari eta nazioarteko kodifikazioari buruz, eta eskubide horiek babesteko eta sustatzeko Nazio Batuek dituzten mekanismoei buruz.

Euskal ikastetxeetan giza eskubideak eta bakerako hezkuntza sustatzen jarraitu dugu, batez ere UNESCOri atxikitako eskolen munduko sarean dauden zortzi ikastetxeetan. 2016. urtean zehar, **'Munduko ondare den labar-arteri buruzko II. lehiaketa eta topaketa'** izeneko antolatu da, Kantauri itsasertzeko Unescoren eskola elkartuetako ikasleentzat.

IRAUNKORTASUNA



Arantza Achak Biosfera Erreserben Mundu Mailako IV. Kongresuan egindako hitzaldia
Lima, Peru, 2016ko martxoak 15.

Aurreko urteetan bezala, 2016an ere UNESCO Etxeak aktiboki hartu du parte UNESCOren MaB Programan. Hain zuzen ere, **Biosfera Erreserben IV. Mundu Biltzarra** egin da Liman (Peru), eta han, UNESCO Etxeak zenbait saiotan parte hartu du, eta buru eta koordinatzaile jardun du tailer batean: UNESCOren 2. kategoriako zentzoei eta biosfera-erreserbei buruzkoan. Horrez gainera, tailer horren ondorioak aurkeztu ditu biltzarreko osoko bilkuran, 800 parte-hartzaileen aurrean. **Biosfera Erreserben Limako Ekintza Plana** egiten ere aktiboki parte hartu du. Plan hori oso tresna egokia da munduko biosfera-erreserba guztientzat, gidatzat erabil baitezakete beren kudeaketan garapen jasagarria kontuan hartzeko. Gainera, **UNESCOren web orri ofizialean** 'MaB Programa 2016-2017' informazio-txostena itzuli eta argitaratu dugu.

Miguel Clüsener-Godt espezialistak, Ekologia eta Biodibertsitatea izeneko MaB-UNESCO Programako Ikerketa eta Politiken ataleko buruak, Urdaibaiko Biosfera Erreserbara egindako bisita ere koordinatu du UNESCO Etxeak. Bisita horren bidez, sendotu egin dira **Urdaibairen eta UNESCOren lankidetzat-loturak**, eta balioan jarri dira garapen iraunkorrerako tokiko ekimenak bultzatzeko ekimenak.

Euskadiko Ekosistemen Zerbitzuen Ebaluazioa babestu eta zabaldu dugu, bai tokiko esparruan bai nazioartekoan, eta horretan interesa duten taldeentzako prestakuntza-saioekin osatu dugu, **'Ekosistemen Zerbitzuak eta Giza Ongizatea Euskadin' online ikastaroaren** bidez.

UNESCO Etxearen jardueraren parte izaten jarraitu dute, halaber, pertsona guztiak ura eta saneamendua eskuragarri izatearen aldeko ekimenek, pobreziaren aurkako borroka eta pertsonen garapena sustatzeko ekintzek. Egindako ekintzen artean, hauek nabarmendu daitezke: **Komunaren Mundu Eguna** ospatzea, **'Ura eta saneamendua izateko giza eskubideak garapen iraunkorreko helburuen ikuspegitik' izeneko online ikastaroa** ematea, ura eta saneamendua izateko giza eskubidearen alde Bizkaiko GGKE-ek egindako erakusketan parte hartzea, eta **'Ura eta saneamendua izateko giza eskubideak 2030 Agendan' txostena** egitea.

2016ko ARGITALPENAK www.unescoetxea.org web gunean eskuragarriak

UNESCOren dokumentuen euskarazko itzulpenak:

- Hezkuntza berraztertzea: Mundu osoko ongia lortzeko bidea?.



Berezko argitalpenak:

- Aukera berri bat denontzat: 2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak Euskadin.
- Los derechos humanos al agua potable y al saneamiento en la Agenda 2030.
- Dos humanistas vascos en la UNESCO. Conferencias homenaje a José Miguel Azaola y Alberto Onaindia.
- Transformar nuestro mundo ¿realidad o ficción?. Reflexiones sobre la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible.

EKITALDI NABARMENAK

1 UNESCO ETXEA- EUSKAL HERRIKO UNESCO ZENTROAREN SORRERAREN 25. URTEURRENA OSPAKIZUNA

Ekainaren 15a, UNESCO Etxea-Euskal Herriko UNESCO Zentroaren sorreraren 25. urteurrena (1991-2016) ospatzeko ekitaldi instituzionala egin zen Bilboko Azkuna Zentroko Auditoriumean.

Iñigo Urkullu Lehendakaria izango da ekitaldiko buru eta, beste batzuen artean, bertan izango dira Maria Teresa de Lizaranzu, Espainiak UNESCOn duen Ordezkaritza Iraunkorrekoren Enbaxadorea, Federico Palomera UNESCOrekin Lankidetzan aritzeko Batzorde Nazionalako Idazkari Nagusia eta Juan M^a Aburto Bilboko alkatea.

Halaber, lankidetzaren, kultura-, zientzia-, hezkuntza- eta gizarte-erlako erakunde eta elkarteek eta euskal erakunde publikoek ere hartu zuten parte. Gertakari horretan, Ohorezko Bazkideen Aholku Batzordeko kideak eta kultura-, zientzia-, hezkuntza- eta giza eskubideen arloko pertsonaiak izan ditu UNESCO Etxeak.

3 EUSKAL HERRIKO UNESCO SAREAREN III. TOPAKETA

Azaroaren 18a, Euskal Herriko UNESCO Sarearen hirugarren topaketa egin zen Gesaltza Añanan.

UNESCO Sarea Euskal Herrian UNESCOri lotutako erakunde publiko eta pribatuek osatzen dute: PEA sarera elkartutako ikastetxeak, liburutegi elkartuak, UNESCO katedrak, UNESCO gune eta elkarteak, UNESCOk aitortutako toki naturalak, mundu-mailako ondaredun tokiak eta diseinuaren hiri sortzailea.

Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak babestu zuen topaketa.

2 OHOREZKO BAZKIDEEN AHOJKU BATZORDEAREN 6. TOPAKETA ETA ADIERAZPENA

Ekainaren 14a, Ohorezko Bazkideen Aholku Batzordearen 6. Topaketa egin zen eta "Garapen Iraunkorrekoren agenda bat Euskadirentzat eta munduarentzat" Adierazpena aurkeztu zuen.

Adierazpen horretan dei egiten zaio ahalmen handiko eragileak dituen euskal gizarteari Agendaren Helburuak lortzen laguntzeko bere espezifikotasun propioekin. Lankidetzaren eta garapenaren sektoreetako nahiz tokikoagoak diren beste jardueresparru batzuetako gizarte zibileko erakundeok, ahalmena dugu gobernuei aholkuak emateko, laguntzeko eta, hala dagokionean, kontuak eskatzeko, hartutako konpromisoak betetzeko orduan.

4 'DAME UN MINUTO DE REFUGIO' LEHIAKETA

VII. edizioan, errefuxiatuak izan ziren 'Eman minutu 1 ... alde' bideo lehiaketako gai nagusia. Yago Mateo, Gasteiztarrak, irabazi zuen edizioa 'Bailemos un WALLS' lanarekin.

Hamazortzi urte beherakoentzako 'Ekin eta egin' kategorian, Aterpe Berri Eskaut Taldea (Bilboko Ikasbide ikastetxea) izan da garaile '¿Por qué no quieres que vengan los refugiados?' lanarekin eta 'UNESCO Etxea' kategorian Mikel Unzuek, bilbotarra, irabazi du 'El valor de una vida' lanarekin.

A Laura C. Urizar-ek, Burgosekoa, 'Con lo puesto' lanarekin 'CEAR-Euskadi Aipamena' irabazi du. Sari honekin, asiloa lortzeko duen eskubidea hoberen babesten duen Ikus-entzunezko lana saritu da.

Koldobika Perez-ek, Bilbotarra, 'La partida' lanarekin 'EIKEN Aipamena' irabazi du. Sari honekin, teknika digitalen erabilera hobekien bultzatu duena saritu da.



1



2



3



4

DATU EKONOMIKOAK

GARDENTASUNA

Gure kontuak LKS Auditores, S.L.-k ikuskatzen ditu.

Kontu-ikuskaritzaren txostenak 'Gardentasuna' atalean www.unescoetxea.org web gunean daude.

2016ko Auditoriaren txostena



LKS AUDITORES, S. L. R.
Industria Bideak, Par. 1-2 01001 Donostia (Gipuzkoa)
T: 943 03 24 00
F: 943 03 24 01
E: info@lksauditores.es
www.lksauditores.es

INFORME DE AUDITORÍA INDEPENDIENTE DE CUENTAS ANUALES ABRUEVIADAS

Al Consejo de Gobierno de UNESCO ETXEA – CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO.

Informe sobre las cuentas anuales abreviadas

Hemos auditado las cuentas anuales abreviadas adjuntas de la Asociación UNESCO ETXEA – CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO que comprenden el balance abreviado a 31 de diciembre de 2016, la cuenta de resultados abreviada, y la memoria abreviada correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha.

Responsabilidad del Consejo de Gobierno en relación con las cuentas anuales abreviadas

El Consejo de Gobierno de la Asociación es responsable de formular las cuentas anuales abreviadas adjuntas, de forma que expresen la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera y de los resultados de UNESCO ETXEA – CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO, de conformidad con el marco normativo de información financiera aplicable a la entidad en España, que se identifica en la Nota 2.1 de la memoria abreviada adjunta, y del control interno que considere necesario para permitir la preparación de cuentas anuales abreviadas libres de incorrección material, debida a fraude o error.

Responsabilidad del auditor

Nuestra responsabilidad es expresar una opinión sobre las cuentas anuales abreviadas adjuntas basada en nuestra auditoría. Hemos llevado a cabo nuestra auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la auditoría de cuentas vigente en España. Dicha normativa exige que cumplamos los requerimientos de ética, así como que planifiquemos y ejecutemos la auditoría con el fin de obtener una seguridad razonable de que las cuentas anuales abreviadas están libres de incorrecciones materiales.

Una auditoría requiere la aplicación de procedimientos para obtener evidencia de auditoría sobre los importes y la información revelada en las cuentas anuales abreviadas. Los procedimientos seleccionados dependen del juicio del auditor, incluida la valoración de los riesgos de incorrección material en las cuentas anuales abreviadas, debida a fraude o error. Al efectuar dichas valoraciones del riesgo, el auditor tiene en cuenta el control interno relevante para la formación por parte de la entidad de las cuentas anuales abreviadas, con el fin de diseñar los procedimientos de auditoría que sean adecuados en función de las circunstancias, y no con la finalidad de expresar una opinión sobre la eficacia del control interno de la entidad. Una auditoría también incluye la evaluación de la adecuación de las políticas contables aplicadas y de la razonabilidad de las estimaciones contables realizadas por la dirección, así como la evaluación de la presentación de las cuentas anuales abreviadas tomadas en su conjunto.

LKS AUDITORES, S. L. R.



UNESCO ETXEA – CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO

Informe de auditoría independiente de cuentas anuales abreviadas
a 31 de diciembre de 2016

Consideramos que la evidencia de auditoría que hemos obtenido proporciona una base suficiente y adecuada para nuestra opinión de auditoría.

Opinión

En nuestra opinión, las cuentas anuales abreviadas adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la Asociación UNESCO ETXEA – CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO, a 31 de diciembre de 2016, así como de sus resultados correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

LKS AUDITORES, S.L.P.
Inscrita en el R.O.A.C. Nº S1054

AUDITORES

LKS AUDITORES, S.L.P.

INDUSTRIA BIDEAK, PAR. 1-2, 01001 DONOSTIA (GIPUZKOA)

T: 943 03 24 00

F: 943 03 24 01

E: info@lksauditores.es

www.lksauditores.es

MP Mercedes Pascual Maestre

11 de mayo de 2017

Sarrera pribatuen eta publikoen jatorra

Sarrerak guztira 2016	735.856,71	
Ekarpn pribatuak	182.481,70	24,80%
Bazkideak	11.884,00	1,61%
Erakunde pribatuak	135.797,24	18,46%
Beste Batzuk (<i>Norbanakoeh dohaintzak, publizitate balioespena...</i>)	34.800,46	4,73%
Ekarpn publikoak	553.375,01	75,20%
Eusko Jaurilaritza (*)	429.072,32	58,31%
Aldundiak (<i>BFA – GFA – AFA</i>)	54.391,15	7,39%
Udalak (<i>Bilbo, Getxo, Donostia, Gasteiz</i>)	30.496,54	4,14%
Atzerri eta Lankidetzta Ministerioa	3.815,00	0,52%
Beste batzuk (<i>lokalen lagapenaren amortizazioa</i>)	35.600,00	4,84%

(*) Eusko Jaurilaritza:

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia 36,17%; Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila 8,68%; Hezkuntza Saila 4,89%; Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza 3,31%; Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia 5,26%

Programetako gastua

GASTUAK GUZTIRA 2016	731.231,45	
Orientazio-zentroa, komunikazioa eta beka	211.385,78	28,91%
EGKE Programa	23.483,48	3,21%
Iraunkortasuna Programa	225.947,54	30,90%
Garapenerako Kultura Programa	68.910,13	9,42%
Bake Kulturaren eta Giza Eskubideen Programa	47.441,40	6,49%
Nazioarteko harremanak	36.892,58	5,05%
Kudeaketa orokorra	81.082,23	11,08%
Lokalen amortizazioa	36.088,31	4,94%

UNESCO Etxeak bere ahalegina eskertzen die hurrengo enpresa eta erakundeei, 2016an laguntza eman baitigute giza garapen iraunkorraren alde lanean jarraitzeko.

Instituzioari diruz laguntzen diote:

- Laboral Kutxa.
- Irizar Koop. Elkarte.

UNESCO Etxearen egitasmoetan laguntzen dute:

- BBK Fundazioa.
- Iberdrola.
- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa.
- Go Basquing.
- Irizar Koop. Elkarte.
- Munduko landagunea.
- Donostia 2016 Fundazioa.
- Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsua.

Baliabideak uzten dituzte:

- Diario El Correo.
- Diario de Noticias de Gipuzkoa.
- Diario de Noticias de Álava.
- EITB.

Egoera-balantzea 2016

AKTIBOA	
Aktibo ez-zirkulatzailea	121.741,21
Aktibo zirkulatzailea	867.394,13
Aktiboa guztira	989.135,34

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA

Ondare garbia	815.237,88
Fondo propioak	42.723,00
Diru-laguntzak, dohaintzak, lagapenak	772.514,88
Pasibo zirkulatzailea	173.897,46
Ondare garbia eta pasiboa guztira	989.135,34